



## Arantxa Tapia sailburuak Urnietako Iparlateko fabrika bisitatu du

- Eusko Jaurlaritzak Esnelaten instalazioak bisitatu ditu Urnietan, Iparlaten eta Kaiku Kooperatibaren eredu industrialia hurbiletik ezagutzeko
- Iparlatek 10 milioi euroko inbertsioa egin du 2019an Urnietako bere fabrikan
- Kaiku Kooperatiba eta Iparlat funtsezko elementua dira esne-sektore egituratzean

Urnietan, 2020ko urtarrilaren 22a. Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuak eta Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeak arratsalde honetan egin dute Esnelateko fabrikara bisita, Urnietan (Gipuzkoa) kokatutako Iparlaten fabrikarik garrantzitsuena. Eusko Jaurlaritzaz gain, ekitaldira Iparlateko zuzendaritza eta Kaiku Kooperatibako lehendakaria eta kontseilariak joan dira.

Bisitan zehar agerira atera da Kaiku Kooperatibaren abeltzainek Iparlaten jatorrian duten funtsezko rola, fundatzaileak izateaz gain, akzio gehiengodunak eta Iparlaten esne hornitzailek handiena baitira. Halaber, nabarmendu da elikagaien kate guztiaren jasangarritasuna bermatzeak modelo honen urtetako arrakastan duen garrantzia.

Fabrikan zeharreko ibilbidean, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Esnelatek 2019an zehar martxan jarri dituen ontziratze bost lerro berriak ikusi ahal izan dute. Albiste honek Iparlaten inbertsionarako bokazioa islatzen du esne-sektorearen ardatz egituratzaile bezala; izan ere, 2019an enpresak Urnietako fabrikan 10 milioi euro inbertitu ditu.

Halaber, bisitan zehar Esnelateko fabrikak egiten ari den inbertsio eta berrikuntza ahalegina nabarmendu da, baita Iparlat taldeak oro har bide horretan emandako pausuak. Izan ere, Kaiku Kooperatibarekin eta Euskadi eta Nafarroako abeltzainekin dagoen lotura eta erlazio estua da bermerik onena etorkizunera begira modelo hau sendotzen jarraitzeko eta sektoreak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko. Zentzu honetan, beste urrats bat eman da 2019ko abenduan, Kaiku laktosarik gabeko esnea Esnelaten berriro ontziratzen hasi baita, merkatuan bakarra den formatu berrian.

### Iparlati buruz

Iparlat 1992 urtean sortu zen. Mercaonaren esne hornitzaile espezialista da 2004tik. Urnietako Iparlateko fabrikan gaur egun 200 pertsona inguru lan egiten dute, Iparlat taldeak oro har 400 langile izanik. 2019ko fabrika honetako ekoizpen bolumena 280 milioi litrokoa izan da. Euskadi eta Nafarroan 347 abeltzainen esnea jasotzen du, 233 milioi litro.

*Rodrigo Sánchez Lecanda – Negozio Garapenaren Zuzendaria*

Telf. 638 41 88 36 [rsanchez@iparlat.com](mailto:rsanchez@iparlat.com)